

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
**Erakusleho
lehiaketa /8**

EHNA
**Balantze
positiboa /9**

LEINTZ GATZAGA
**Gatzagako Pilota
Txapelketa /10**



Hiruatx: 12 urte herri pobreekin

Proiektuen berri ematen
duen liburuxka kaleratu dute



TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Arrasate	943 79 14 39
----------	--------------

LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Orñati)	943 78 28 00

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 20
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 21
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

OHARRAK

MENDI MARTXA URKULURA
Mendi martxa egingo dute Urkulura *Utzi pakean Urkulu* lelopean. Hainbat taldek egin dute deialdia, eta 10:00etan aterako dira gure Herriko Plazatik.

AKORDEOI ORKESTRAREN KONTZERTUA
Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak kontzertua emango du bihar, zapatua, 20:00etan, parrokian.

LUDOTEKA ITXITA
Oporrak hartuko dituzte Algora ludotekako ardura-dunek abenduaren 18tik urtarrilaren 7ra bitartean.

LIBURUTEGIA ITXITA
Itxita egongo da Udal Liburutegia abenduaren 25etik urtarrilaren 7a bitartean.

ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN

Gipuzkoako txapelkun izan ziren Errasti anaiak

Eskuz binakako Gipuzkoako Pilota Txapelketa jokatu zuten Errasti anaiek Hernanin. Donostiako Altza auzoko bikotea izan zuten aurkari, eta partidu gogorra jokatu ostean 22-18 irabazi zuten aretxabalatarrek. Abenduaren 30ean, bestalde, Euskadiko Txapelketa jokatzen hasi ziren.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Fiua"

Txistu.
—*Fiua entzun orduko etortzen da txakurra.*



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

- 6 urtetik aurrera:**
- 'Joanes eta Bioletaren bihotza' / Miren Agur Meabe
 - 'Berri ona' / Mariasun Landa
 - 'Niko eta Potiko' / Antton Kazabon
 - 'Euskal Herrira igerian iritsi zen neskatza' / Mark Kurlansky
 - 'Hirugarreneko sorgina' / Patx Zubizarreta
 - 'Amets baten barruko pilotua' / Joxemari Iturralde
 - 'Izeba Klariona' / Juan Kru Igerabide
 - 'Olentzaro sua hilda' / Bitto Kapanaga
- 8 urtetik aurrera:**
- 'Nemesioren itzala' / Pako Arist
 - 'Zuk-zuk jaunaren alfabet berria' / Bernardo Atxaga
 - 'Zazpigarrena eta azkena' / Patx Zubizarreta
 - 'Amona basoan galdu zenekoa' / Arantxa Iturbe
 - 'Ni ez noa berriz Lourdesera' / Joxemari Iturralde
 - 'Marina' / Mariasun Landa
 - 'Graak!' / Anjel Lertxundi
 - 'Mixa Marrau' / Txiliku

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA


ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Iñaki Salaberria
15ean, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Josu Aramburu
16an, 10 urte. Zorionak eta muxu bat! Amama, osaba, izeba eta lehengusua.



ARETXABALETA
Aritz Fernandez
18an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Jon Gonzalo
18an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen eta Gorkaren partetik.



ARETXABALETA
Miren Etxeandia
21ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Petete
22an. Zorionak, *bollo!* zu beti gazte. Juanitaren eta Pepitaren partetik.



ARETXABALETA
Naiara Altube
24an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Gorka Gonzalo
26an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen eta Jonen partetik.



ARETXABALETA
Lore Etxeandia
31n, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Jesus Agiriano
31an. Zorionak osaba! Etxekoak, Alaitz, Eñaut eta Manex.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS

argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67



Gorputz lan taldeak

Bioenergetika
Meditazioa
Zinema eta mitologia tailerrak



Sadhana yoga eta psikoterapia zentroa
Santa Kurtz 24 Aretxabaleta Tel.: 616 96 57 95

Psikoterapia


Pertsonalizatua eta taldekakoa

Monografikoak:

- Psiko-gorputz integrazioa
- Balio pertsonalak

Urte berri on!

ATREBENTZIAEZPADA/ Aurten, ondo portau zara? Zer eskatuko dutzezu Olentzerori edo Erregiei?



JON AZKARATE
10 urte



HAIZEA ARRIETA
6 urte




ANNE PAUL
4 urte



IDOIA SANCHEZ
9 urte



UNAI MENDIETA
3 urte



JOKIN ALTUNA
5 urte

Ez dakit. Neure ustez ondo portau naz, baiñe igual amak ez dau igual pentsauko. Olentzerori eskatuko dutzet erregalue. Ezustekue izen dain gure dot, neuk ez dutzet ezer eskatu.

Bai, txintxue izen naz. Olentzerori ondiokan ez dutzet kartie eskribidu. Gauza asko biher dittut eta lista bat egingo dotela uste dot. Dana dala, ez dakit zer eka- rriko dusten.

Bai. Amatzok eta aitatzok be txintxo portau nazela esaten daue. Olentzerok ekarten dust neri erregaluek. Aurten be, idatzi dutzet eskutitze eta espero dot jostailluek eka- rriko dittuela neuretako.

Bai. Aurten, etxekuei ohiak egitten lagundu dutziet. Neuri, Olentzerok eta erre- giek, bixek ekarten dustie erregaluek. Ez dutziet ezer eskatu, baiñe jostailluek eta arropa gure dittut.

Bai. Aittek eta amak txin- txue nazela esaten dustie, baiñe andereñuek ez. Olentzerori zezena eta tronpeta bat eskatu dutzet. Jolas egi- tteko biher dittut horreik bixok.

Bai, txintxue izen naz urtien zihet. Olentzerori, oingoz, motor teledirigido bat eskatu dutzet. Gauza gehixau be gure dittut, bai- ñe ondiokan ez dot pen- tsatu ze gehixau eskatu.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZAKARRA NONAHI Goyaldean duzuen irudia gura baino gehiagotan errepikatzen da herrian. Beharbada ez du irtenbide erraza izango Mitarteko kalean dauden edukiontzi inguruak garbi edukitzea. Izan ere, taberna eta merkataritza-gune ugari daude metro koa- dro gutxiren barruan. Hala ere, zerbait egin beharra dago. Azkenean, edukiontzi inguruak ez ezik, kale osoa betetzen baita zakarrez. /A.L.

ETABARRUAN...

HIRUATX /04 12 urte herri probretuekin Liburuxka kaleratu du Hiruatx elkarteak 12 urte hauetan egindako lanaren berri emateko.	GABONAK /05 Gabonetako ekitaldiak Ekitaldi ugari izango ditugu aurtengo Gabonetan; umeak izango dira protagonista nagusiak.	KIROLAK /06 Pilota txapelke- tako irabazleak Bergarako bikote bi izan dira Udala Kirol Zerbitzuak antolatzen duen pilota txapelketako irabazleak.
--	---	---

ASTEKODATUA

200

LAGUN INGURUK EGIN ZUTEN EHNA


Joan den domekan, hilak 14, 200 lagun inguruk egin zuten Euskal Herriko Naziotasun Aitorpen agi- ria Aretxabaletan. Datu horri gaur, egubakoitza, egingo dire- nak gehitu beharko zaizkio.

BESTE EKESANA

“Oso gustuko dut irakurtzea. Zaletasun hori, gainera, txiki- txikitatik datorkit. Kill-kill irakurtzen nuen bere garaian, baita Kirikiñi- ren ipuinak ere. Irakurritako lehenengo liburu sendoa Garoa izan zen. Ondoren Kresala irakurri nuen. Orain arte, gehien gustatu zaidan liburua Ramon Saizarbito- riaren Gorde nazazu lurpean eleberria izan da. Niretzat liburua lagun bat da, sekulan bakarrik uzten ez zaituena. Triste bazaude eta liburua hartzen baduzu, poztu egin zaitzake. Bestalde, triste egoteko gogoia baduzu, aukera hori ere ematen dizu. Elementu lejiala da liburua. Momentu txarretan edo momentu politenetan, beti daukazu lagun bat den liburutxo.

LORE LEANIZBARRUTIA
'Debaguneko berripapera' /03-12-16

HERRITARRENBERBAK/ Anjel Bergaretxe



Olentzero ala erregeak?

Nahiz eta agian ez oso biziki, urtero sasoi hone- tan sortzen den galdera eta polemika izaten da hau. Eta aukera baten aldekoak zein besteok arrazoi ugari eta sendoak izaten dituzte, gainera. Olentzeroren aldekoek, hau gureago dela esango digute, euskaldunagoa ale- gia. Beste batzuk hor- retaz gain monar- kiaren aurkakoak ere badirela gehituko dute, eta hau nahiko arrazoia dela ikazki- naren alde egiteko.

Besteek aldiz, Olentzeroren euskal jatortasun hori ukatu egingo dute, hau yan- kiei eta kopiatutako zerbait baino ez dela argudiatuz. Gai- nera, erregeak hiru izanda, opari gehiago izateko aukera be ba- dago, beraz euren alde.

Ni, Olentzeroren alde nago, baina ez gorago aipaturiko arra- zoiengatik (edo ez horiengatik bakarrik). Nik umetan erregeak izaten nituen (bai, nahiko zaha- rra naiz), eta horrek sortuta, oraindik ere aldean dudak frus- trazioak eraman nau Olentzero zale izatera. Izan ere benetan

sumingarria zen opor guztiak zain egon ondoren, orduan gutxi eta gutxitan jasotzen zen jostaillu- ren bat hartu, eta hurrengo egu- nean, oparia gozatzeko ia astirik izan barik eskolara! Eta gero jakin genuen beste ume batzuk aldiz, opor osoak zituztela opariez aspertzeko. Franco ma- darikatua, honetan be edarra sartu zigan.

Eta sasoiari berriz be men eginez, buka- tu aurretik datorren urterako onena opatu behar guztioi ezta? Bueno guztioi ez. Urte osoa gu izorratzen jardun duten horiek; aurten, iaz bezala hainbat eta hainbat une latz pasarazi dizkiguten ho- riek, doazela pikutara. Eta hau nahita idatzi dut. Ez ditut teklak gura barik ukondoaz zapaldu bestaldera begira nengoela.

Beno ba, horiek kenduta, urte berri on besteoi. Eta denon izene- an, Atxabaltatik urrun dauden bi lagun aipatuko ditut. Bata Kepa Urria, adiskide mina dudalako, eta bestea Antonio Astigarraga, etsaia ez dudalako. Eta gainera baliteke hau irakurriko duen bakarra izatea. Ondo pasau!

“Umetan erregeak izaten nituen, eta horrek sortutako frustrazioak eraman nau Olentzero zale izatera”

Aretxagazeta

Durana, 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mireia Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.400 ale



Eusko Jaurilaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



M. J. Aretxaga

Hemen daz Gabonak

Gaiñien dauzkogule Gabonak. Oporrak, oparixek, loterixie... bakotzak geure ilusiñotxuek dauzkogu egiñek eta ez da samurre izengo danok pozik geraketie. Gabonetako loterixie ondiokan ez jaku etorri, baiñe herrixen dagoeneko jaso daue batzuk aurrerapena. LKS taldeko 20 bat laguni ia 4.000 euro tokau ei jakie. Ez dau txarto, dirue beti etorten da-eta ondo.

Ospakizunetan ibilli dien batzuk, aste bukæran Untzillara igoera egin euien mutillek hainzuzen. 23 urte inguruko 15 bat mutil txirrindulari jantzi eta guzti fan zien Untzillara. Hara igo aurretik, baiñe, herrixen ibilli zien zarata apur bat ataraten. Bapo bazkaldu euien gero, eta gabien, duda bari, parrandan ibilli zien.

Bixer, zapatue, Urkulure martxie antolatu dauie talde politiko, sindikatu eta ekologi talde batzuk. *Utzi pakean Urkulu* izengo da lemie eta 10:00etan urtengo die gure Herriko plazatik. Urkulun egin gure dittuen 1.000 etxebizitzan eta Urkulu-II urtegixen projektuen kontra egin gure daue protesta martxiek. Nik, neuk ez dot ezauketan projektu edo plan hori detalle danakin, baiñe ez jat bape gustau oin arte entzun dotena. Hortaz, zapatuen ikusiko naue martxara doiezenak.

HIRUGARREN MUNDUA/ Oso pozik daude Hiruatxeko kideak aretxabaletarrendik jaso duten erantzunarekin

Liburuxka kaleratu du Hiruatx elkarteak 12 urtean egindako lana ezagutarazi eta eskertzeko

MIRARI ALTUBE

Dagoeneko 12 urte bete ditu Hiruatx elkarteak, eta hori aitzakia hartuta liburuxka kaleratu du. 12 urtean zenbat proiektu eroan dituen aurrera jakinarazi gura izan die laguntza emandako herritarrei, eta, era berean, eskerrak emateko modua izan da liburuxka.

Isil-isilik eta fin-fin ibili da lanean Hiruatx hirugarren mudurako elkarteak, eta dagoeneko 12 urte bete ditu. Eta ez nolanañi bete, gainera: sei proiektu eroan dituzte aurrera, hiru kontinentetan.

HIRU KONTINENTE, SEI PROIEKTU

Indian hasi zuen Hiruatxek ibilbidea, 1991n. Lau urte iraun zuen Unai proiektuak, eta 1999an jarraipena izan zuen beste hiru urtez. Bigarren proiektua Afrikako Kongo herrialdean garatu zuten; eskola bi egin zituzten Bukavun. Kolonbiako San Clemente proiektua etorri zen 1997an, eta urtebetean lantegi nekazari-industrialak egin zuten. 1998an Nikaragua-ko Condega herrian hasi ziren lanean, eta proiektu bi eroan zituzten aurrera. 2000. urtean uholdeak izan zituzten Mozambiken, eta laguntza bidali zien Hiruatxek. Azken proiektua Ekuado-



Ekuadorko Rukullakta herrian du azken proiektua Hiruatxek; ia urtebete darama Ibon Antero Hiruatxeko lankideak bertan.

rren dute, Rukullakta eskualdean, eta kooperatiba bi sortu dituzte.

ARETXABALETARREI ESKER

Zehatz-mehatz eman dute proiektu guztien berri kaleratutako libu-

ruxkan; argazki ugari, lagunduta. Aretxabaletarren diru ekarpenak aipatu dituzte, gainera; izan ere, oso pozik daude Hiruatx elkarteak herritarrendik jasotako erantzunarekin:

“Udalak eta herriko taldeek lagundu digute, baina herritarrek egin dituzte ekarpenik handienak. Urtetik urtera, gainera, igoaz joan dira laguntzak”, esan digu Jose Mari Sarasuak.



200 bat herritarrek tramitatu zuten domekan EHNA

Eguraldi eskasa egin zuen domekan, eta herritarrek aterkia eskuan hartuta hurreratu ziren EHNA tramitatzera. Lehenengo, aureskua egin zuten dantzariak, eta gero, Bai Euskal Herriari taldeko Lorea Serratok euskal naziotasunaren gaineko idatzia irakurri zuen. Bukatzeko, 200 bat lagunek egin zuten EHNA. Gaur, egubakoitza, berriro elkartuko da taldea, orduan tramitatu ez zutenek egin dezaten. /M.A.



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

KiXkur
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala

Ile-luzatzeak

Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA



GABONAK/ Udaleko Kultura Saila eta herriko taldeak Gabonak noiz hasiko zain daude

Ekitaldi ugari izango ditugu aurtengo Gabon jaietan

MIRARI ALTUBE

Eskoletako umeek gaur hartu dituzte oporrak, eta hainbat lantegik ere gaur itxiko dituzte ateak. Izan ere, Gabonetan gaude, eta Kultura Sailak gertu ditu opor egun hauetarako ekitaldiak: Olentzeroren, Bizar Zuriren eta erregeen etorrera izango dira garrantzitsuenak.

Ez da samurra adin eta gustu guztiendako ekitaldiak antolatzea. Hala ere, horretan saiatu dira Udaleko Kultura Saileko arduradunak, betiere argi utzita

Gabon jaietan umeak direla protagonista.

BETIKO EKITALDIK NAGUSI

Urteroko ekitaldiak izango ditugu nagusi aurten ere. Gabon egunean Gabon kantak abestera aterako dira herritarrak; batetik, baserriz baserri joango dira, eta bestetik, ikastetxeetako umeak eta gurasoak kalez kale ibiliko dira. Arratsaldean, osteran, Olentzero izango da protagonista.

Abenduaren 29an eta 30ean Poxpolin Park izango dute kirol etxean 12 urte arteko ume eta gaztetxoek eta 31n Bizar Zuri etorriko

da eskutitzak eroatera. Urtarrilaren 5ean, berriz, errege kabalgata pasatuko da herritik.

EPEH PLATAFORMAREN ERAKUSKETA

Gabonak iraun bitartean, erakusketa jarriko dute EPEH plataformako kideek. Uda partean opor lekuan ateratako argazkiekin egindako erakusketa izango da, eta udaletxe zaharreen jarriko dute ikusgai abenduaren 24an, 31n eta urtarrilaren 5ean. Urtero egiten duten kale agerraldia ere egingo dute abenduaren 31n, Bizar Zuri pasa eta gero izango da, Herriko Plazan.

TXUTXU-MUTXUA



Sariak banatu dituzte Udal Euskaltegian

Gabonak gainean ditugu, eta zorion desioak eta opariak dira nagusi garai honetan. Hori horrela, Aretxabaletako Udal Euskaltegian zozketa egin dute ikasleen artean. Vanesa Rebanal aretxabaletarrak, EGA taldean dagoenak, *Badakit* mahaijokoa eta agenda jaso zituen; eta Miguel Angel Gonzalez arrasatearrak, 6. urratsean dagoenak, *Kutsidazu bidea* Isabel liburua eta agenda. Pozik azaldu ziren biak. Gaur, egubakoitza, gainera, oporrak hartu dituzte ikasle eta irakasleek. /M.A.

EUSKARA/ Ekitaldi ugari izan ditugu Loramendiren eskutik: hitzaldiak, antzerkiak...

Astean bukatu ditu Loramendi EEk udazkeneko ekitaldiak

M.A.

Astean bukatu ditu Loramendi EEk aurtengo udazkeneko antolatutako ekitaldiak. Munduari itzulia eman dion Eneko Etxebarrietaren hitzaldia izan zen, hain zuzen, azken ekitaldia.

Ekitaldi ugari antolatu zituen Loramendi Euskara Elkarteak herritarrondako: Labrit kantariaren

kontzertua, hitzaldiak, antzerkia... Era berean, antzerkigintza ikastaroa jarri zuten abian, eta erantzun ona izan zuen.

Astean izan dituzte, hain zuzen, azken ekitaldiak: txotxongilo emanaldia, sukaldaritza begetariano ikastaroa eta Eneko Etxebarrietaren ikus-entzunezko emanaldia. Pozik daude elkarreko kideak, herritarren partehartzeak gora egin duelako.



Adi egon ziren umeak txotxongiloekin.

LABUR

UDA elkarteak batzarra egingo du urtarrilean, batzordekideak eta presidentea hautatzeko

Aretxabaleta kirol elkarteak, UDAk, batzarra egingo du urtarrilaren 16an, Zuzendaritza batzordeko kideak eta presidentea hautatzeko.

Ekainean egin zuen UDAk

batzar orokorra, eta Gabonak arte bakarrrik jarraituko zuela esan zuen orduan Zuzendaritza batzordeak. Hori horrela, batzar garrantzitsua izango da, zela aurrera egin erabakitzeko.

MAITE
ileapaindegia

Sarasate • 943 79 59 05
ARETXABALETA

Hirusta
Fatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA**

Aretxagazeta

**AMETS
TABERNA**

Iparragirre 4
Tel: 943 79 01 29
ARETXABALETA

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

URKULU

FERRETERIA • BRICOLAGE
INDUSTRIA HORNIDURAK

Mitarte 23 / ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66 / Faxa: 943 77 10 33
urkulu@cadena88.com

Expres

Santakurtz 16
943 79 23 43

PILOTA TXAPELKETA

Bergararrak nagusitu ziren eskuz binakako pilota txapelketan

Joan den zapatuan, hilak 13, jokatu zituzten maila bietako finaleko partidua, Iturrigorrin.

AMAGOIA LASAGABASTER

Herri bakarria izan zen protagonista, joan den zapatuan, hilak 13 jokatuak eskuz binakako pilota txapelketan. Lehenengo mailan eta bigarren mailan bergararrak izan ziren irabazle. Gabon ostean, Debagoieneko zirkuituan jokatzeko aukera izango dute horiek.

Bergararik etorritako pilotariak eskuratu dute aurten Udal Kirol Zerbitzuak antolatzen duen eskuz binakako pilota txapelketa. Hori ere erabaki zuten joan den zapatuan, hilak 13, jokatu zituzten partiduetan. Edonola ere, oñatiarrak, arrasatearrak eta aretxabaletarrak ere ez dira atzean gelditu. Finaleko partiduetan, horiek guztiak lehia bizia izan zuten.

MAILA BI

Aurtengo txapelketa maila bitan jokatu dute: lehenengo mailan, federatu ohiak eta pilotan maila ona duten kirolariak ibili dira. Bigarren mailan, berriz, pilota bigunarekin jokatu dute. Guztira, 18 bikote hartu dute parte. Gehienek, 12 bikote gutxi gorabehera, lehenengo mailan jokatu dute.

Lehenengo mailako finalera Igor Orasuegi eta Joseba Larrañagak osatutako bikotea eta Juantxu eta Unai Uriarte iritsi ziren. Norgehiagoka gogorra izan zuten. Batik bat, lehenengo tantoetan bikote bien arteko aldeak txikiak izan ziren. Azkeneko, baina, Aitor



Lehenengo mailako txapeldunak eta txapeldunordeak sariarekin.

Uriarte aretxabaletarrari eskuan zituen arazoak nabarmendu egin zitzaizkion eta Orasuegi eta Larrañaga nagusitu egin ziren.

Bigarren mailan, Anartz Agirrek eta Xabier Larrañagak ez zieten irabazteko aukerarik eman Iban Isasti eta Argider Isasti oñatiarrei.

DEBAGOIENEO ZIRKUITUA

Gabonak pasatu eta gero, Debagoieneko zirkuituko pilota txapelketa jokatu dute. Horietan,

gutxienez, aurtengo denboraldian txapelketa bi jokatu dituzten pilotariak hartuko dute parte. Orain arte, Elgetan, Arrasaten eta Aretxabaletan egin dituzte eskuz binakako pilota txapelketak. Hortaz, horietan puntu gehien jaso dituzten zortzi bikoteek jokatu dute Debagoieneko masterra. Partiduak noiz jokatu dituzten zehaztu barik egon arren, txapelketa Oñatin egingo dutela aurreratu digu Aretxabaletako kirol teknikari Asier Muxikak.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

UDA-Urola

Lehenengo mailako gazteak.
Zapatua, 16:00. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Urretxu

Gazteak.
Egubakoitza, 20:00.
Zumarraga-Aretxab.
Nagusiak.
Egubakoitza, 21:30.
Hernani-Aretxab.
Nagusiak.
Zapatua, 16:00.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 0 Zarautz 1

Preferentea.

UDA 1 Mariño 1

Gazteak. Ohorezko liga.

Antiguoko 2 UDA 1

Lehenengo mailako gazteak.

Beti Gazte 3 UDA/Almen 1

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA/Almen 3 Eibartarrak 4

Bigarren mailako kadeteak.

Almen/UDA 3 Gasteiz Cup 2

Emakumezkoen liga.

UDA/Almen 1 Gasteiz 2

Emakumezkoak. Futbol 8.

UDA 2 Eibar 1

Infantilak.

Almen/UDA 1 Aloña 0

Lehenengo mailako infantilak.

PILOTA

Oiartzun 22 Aretxab. 3

Bigarren mailako gazteak.

Aretxab. 22 Tolosa 8

Lehenengo mailako nagusiak.

Aretxab. 22 Azpeiti 15

Bigarren mailako nagusiak.



Bixente Etxeandiak omenaldi beroa jaso zuen

UDako presidente Bixente Etxeandiak omenaldi beroa jaso zuen ohorezko ligako gazteen eta Jose Mari Arkauz taldeko ordezkariaren eskutik. Jose Mari eta haren alabak dantza saioa eskaini zioten. Ondoren, Bixentek garaikurra eta lore sorta jaso zituen. Ibarra futbol zelaian jende dezente batu zen eta guztiak txalo zaparrada eskaini zioten Bixenterri. /A.L.

ILE APAINDEGIA & ESTETIKA
TELF: 943 798 364

HERRIKO PLAZA 5
ARETXABALETA

*Matikua
jatetxea*

Azarta auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

J.J. IRURE
ITURBIA

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

**Dorleta
taberna**

Bezereen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

Lasai

**Mirian Manteca
masajista**

Lezama Zentru Komertziala
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
 - Kraneala
 - Estrukturala
 - Funtzionala
- Lotura muskularrak

**OSKAR
garajea**

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa A-2-4
ARETXABALETA
www.garajeoscar.com

ARRLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34



UDAL EUSKALTEGIAK

Euskararentzat
bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz
argituko da noizbait
bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu
Herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak
dakarkiola geureari
osasuna

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2 - 4, Aretxabaleta
Intxartxueta 10; Eskoriatza
Tel: 943 79 21 68 Faxe: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Opariak jasotzea zoragarria da

Eta egitea, erraz-erraza!



Chantelle barruko arropa

XARMANTA OPARIAK
Gastainadui 21 Eskoriatza



Fernando Aldazabal lepokoa

ANDUAGA LURRINDEGIA
Durana 42 Aretxabaleta




Yoel kamiseta

KAKI JANTZI DENDA
Hidalga 15 Eskoriatza



Olympus kamera digitala

PHOTOSYNTHESIS ARGAZKILARITZA
Herriko plaza 5 Aretxabaleta



Diseinu markoa

M^o JESUS ARGAZKILARIA
Herriko plaza 10 Aretxabaleta



Umeendako botak

M^o KARMEN OINETAKOAK
Errekabarren 22 Aretxabaleta



Nel Blu soinekoa

IRIARTE UMEEN MODA
Durana 8 Aretxabaleta



Nordikak

ZUBIA OINETAKOAK
Mitarte 14 Aretxabaleta



Donezkoen jaka

ASENSIO JANTZI DENDA
Mitarte 12 Aretxabaleta



Argazki grabaketa

MARTIN ERLOJU DENDA
Mitarte 16 Aretxabaleta



Emakumezkoen jaka

ASENSIO JANTZI DENDA
Mitarte 12 Aretxabaleta



Luca kamiseta

ASENSIO JANTZI DENDA
Mitarte 36 Aretxabaleta



Bitxien diseinua

MIREN ZURIÑE BITXITEGIA
Otalora 4 Aretxabaleta



Intima Cherry barruko arropa

LIE LURRINGEGIA
Mitarte 18 Aretxabaleta



Amour barruko erropa

FRANCESCO ROSSI MERTZERIA
Ozalbarren 3 Aretxabaleta



Lancaster krema

PAGALDAI OPARIAK
Durana 33 Aretxabaleta



Ray Ban betaurrekoak

BEGIONDO OPTIKA
Loramendi 10 Aretxabaleta

- Aitzorrotz** elektronika
- Alboka** gazte moda
- Ana's** jantzi denda
- Angelines** autozerbitzua
- Aretxabaleta** iturgintza
- Asensio** jantzi denda
- Begiondo** optika
- Calderon Soledad** autozerbitz.
- Errekabarren** fruta denda
- Etxabe** harategia
- Gantxegi** harategia
- Gemes** edertze aretoa
- Gertu** janari prestatuak
- Haurrak** umeen moda
- Ibarra** estankoa
- Iber** loteria
- Imanol** janari denda
- Iriarte** umeen denda
- Irudi** ileapaindegia
- Jauregi** okindegia



**Zure herriko dendetan erosi
eta sariak irabaz ditzakezu!**

**Lehiaketa 2003ko abenduaren
1etik20ra izango da.**

- Jon** harategia
- Josu** harategia
- Kioskoa** kioskoa
- Kixkur** ileapaindegia
- L-10** ileapaindegia
- La Brasileña** akeita etxea
- Lasai** masajeak
- Leibar** arraindegia
- Leintz** mertzeria
- Leniz** liburudenda
- Mari Karmen** oinetakoak
- Maritxu** mertzeria
- Martin** erlojudenda
- Miren Zuriñe** bitxitegia
- Nerian** loradenda
- Photosynthesis** argazkilaritza
- Txilarra** dietetika
- Zainduz** osasuna/fitnessa
- Zare** artegintza
- Zubia** oinetakoak

Mota guztietako gidatzeko
baimenak ateratzeko aukera.
LARRINGANEK.

Ordutegia, zure beharretara
egokitua.
LARRINGANEK.


Testak egiteko CD bat etxera
eramateko aukera,
irakaslearen jarraipen osoarekin.
LARRINGANEK.

Berria!

Gogo pixka bat.
NORBERAK.



Bulego ordutegia:
10:00-13:00 eta 16:00-20:00
Basabe Poligonoa F-0-7
ARETXABALETA
Telefona: 943 79 64 50



ERRETRATUZHARRA

Ikastolako lehen umeak kalez kale

Eguaztenean, Gabon egunean, herriko ikastetxeetako umeak Gabon kantak abestera aterako dira, gurasoek, irakasleek eta herriko txistulariek lagunduta. Ohitura aspalditik dator, Aretxabaletako Loramendi ikastola abian jarri zutenetik hona, hain zuzen ere. Erretratua 1969. urte ingurukoa da, eta ikastolako lehen ikasleak ageri dira bertan; 3 eta 6 urte bitarteko neska-mutikoak Matilde Sanz irakaslearekin batera. Kalez kalé joaten ziren Gabon kantak abestera, eta erretratua Santa Kurtz kaleko plazatxoan atera zieten. Umeek abestutako kanten truke, dirua, gozokiak, urrak eta intxaurrak ematen zizkieten herritarrek. Abestu bakarrik ez, jaiotza eroaten zuten aldean, eta txandatuaz joaten ziren neska-mutikoak. Orain gurasoekin ateratzen badira ere, lehen, umeak bakarrik ibiltzen ziren irakasleekin. Urte hartan, gainera, jaiotza jarri zuten Santa Kurtz kaleko plazatxo honetan berta; herriko talde batek antolatu zuen.

Loramendi ikastola abian jarri zutenean Gabon kantak abesteko ohiturarekin batera, Olentzero etorri zen. Ordura arteko umeek errege magoei itxaroten zieten opariak jasotzeko, ia oporrak bukatu arte itxaron behar, gainera; baina ikastolako umeak Olentzero ikazkinari eskatzen hasi ziren. Urtetik urtera gero eta indar handiagoa hartzen hasi

zen gure ikazkina, eta gaur egun Olentzero bako Gabonik pentsatu ere ezin dugu egin.

Erretratuan agertzen diren ume guztien izenak ateratzea ezinezkoa gertatu zaigu; batzuk ez direlako behar bezala ikusten eta beste batzuk ezin izan dituelako inork ezagutu. Izan ere, urtetxo batzuk pasatu dira ordutik hona... Ezkerretik hasita lehenengo

ilaran: Iñaki Sarasua, Uriarte, Aitor Sarasua, Jokin-Uribesalgo eta Aitor Armentia jaiotzari helduta, Jon Kepa Zubillaga azpian makurtuta, Jorge Bengoa, Pello Olabe, Anjel Mari Errasti, Mikel Otero, Jaione San Migel, Maite Urzelai eta Mireia Uribetxebarria.

Ezkerreko partean, atzealdean dauden mutikoak: lehenengo hirurak

ezezagunak dira, Asier Aranguren, Juan Jose Iregi, Angel Zubillaga, Peru Bengoa, ez ezaguna eta Imanol Altube.

Jaiotzaren atzean Iñaki San Migel dago, eta ezkerreko partean: Jasone Uribesalgo, ezezaguna eta Alberto Etxabe.

Argazkia: Jaione Olabe



ZARAIA taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA

943 79 64 91

605 71 66 92 / 629 47 72 70

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g

Tel: 943 79 91 84

Aretxabaleta

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Gabon zoriontsuak igaro!



- BILTEGI-HOZKAILUA
- OKELA-PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15 • 943 79 34 28 • Faxe: 943 79 34 28

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 19a / 150. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: S5200/99

Herriko erakusleihorik politenek eta orijinalenek saria jasoko dute aurten ere

AMAGOIA LASAGABASTER

Abian da Udaleko Kultura batzordeak antolatutako erakusleihen lehiaketa. Beste behin ere, Gabonetako apaingarriekin osatutako erakusleihorik politenak jasoko du saria. Aurten, gainera, txapelketan parte hartzeko ez dago izena eman beharrik.

Gabonak girotzeko eta herriko saltokietan kontsumoa bultzatzeko asmoz antolatu dute aurten ere erakusleihen lehiaketa. Eguaztenean, hilak 17, amaitzen zen parte hartzeko aukera. Egun horretatik aurrera, txapelketa irabazi gura duten guztiek apaindurik eduki behar dituzte erakusleihoak. Sariak, berriz, abenduaren 31 baino lehenago emango dituzte.

PARTE-HARTZEA

Udal Kultura batzordeak duela bost urte antolatu zuen aurreneko Gabonetako erakusleihen lehiaketa. Orain arte, parte hartu gura zuten dende izena eman beharra zeukaten. Aurten, berriz, Gabonetako apaingarriekin osatutako edozein erakusleihok jaso dezake saria. Iaz, esaterako, hamar bat denda ibili



Santa Ana auzoan dagoen Dorleta liburu dendak irabazi zuen iaz erakusleihen lehiaketako lehenengo saria.

ziren lehian, baina aurten ez dago jakiterik zenbat izango diren. Hori xe esan digu Arantxa Untzueta Kultura teknikariak. Edonola ere, guztiek, baina, urtarrilaren 6ra arte

izan beharko dituzte erakusleihok apaindurik.

Sariei dagokionez, hiru egongo dira: lehenengoa 210 eurokoa, bigarrena 150 eurokoa eta azkena

90 eurokoa. Irabazleak aukeratzeko epaimahaian Kultura batzordeko kideak, kultura zinegotzia eta artearekin harremana duten hiru herritar egongo dira.

Lehiaketaren helburua da Gabonak girotzea eta herriko saltokietan kontsumoa bultzatzea

Aurten, Gabonetako apaingarriekin osatutako edozein erakusleihok irabaz dezake saria

Kultura batzordeko kideak, kultura zinegotzia eta hiru herritar egongo dira epaimahaian



Giro ederrean inauguratu zuten parrokia

Eguraldiak ez lagundu arren giro ederra izan zuten apotzagarrek joan den domekan. Auzotar gehienak eta eskoriatzar ugari hurbildu ziren Apotzagara. Joan Maria Uriarte Donostiako elizbarrutiko gotzainak esan zuen meza, baina izan zen Monakotik etorrita aldarean lagun izan zuenik ere. Izan ere, Bittor Zubizarreta apotzagarra Monakoko lana egun batzuez utzi eta inaugurazio ekitaldian izan zen. Meza-ren ondoren 105 lagun elkartu ziren Auzoetxe elkartearen elkarrekin bazkaltzeko.

LABUR

ZE BARRI? aldizkariaren 150. zenbakia

ZE BARRI? URLATIK LANDETARA Gatzaga eta Eskoriatzako herri aldizkariaren lehenengo zenbakia 1996ko ekainaren 26an argitaratu zen. Axtroki eta Pagedar euskara elkarteek bultzatu zuten ekimena. Hilabetekaria zen aldizkaria aste-kari bihurtu zen Goienaren baitan sartu zenean. Itxura ere aldatu zuen; izan ere, 2001eko urriaren 19az geroztik, egunkari formatuan jasotzen dugu astekaria. Aste honetakoarekin 150. zenbaki biribila bete du ZE BARRI? aldizkariak.

135 LAGUNEK EGIN DUTE EHNA



AINZANE GARDOKI

Eskoriatzar ugari hurbildu zen udaletxera EHNA egitera joan den domekan.

Uste baino EHNA agiri gehiago tramitatu zituzten Eskoriatzan

AINZANE GARDOKI

Abenduaren 14an Euskal Herrian EHNA tramitatzeko egun nazionala egin zen. Eskoriatzan EHNA tramitatzeko ekitaldia udaletxeko osoko bilkura aretoan egin zuten. Jai giroa nagusi izan zen trikiti eta txalaparta soinuekin.

Herritar ugari -135- hurbildu ziren udaletxeraino EHNA egiteko. "Oso pozik gaude herritarrek emandako erantzunarekin. Gatzaga, Aramaio, Gasteiz, Eibar, Zarautz eta Oñatiko lagun batzuek ere gurean tramitatu zuten EHNA. Goizean ibili zen jende gehien", esan digu Bai Euskal Herriari tal-

deko kide Lorea Agirianok. "Eskoriatzako bi hilabeteko umetxo bati egin zioten gurasoek EHNA. Bera da Eskoriatzan EHNA duen pertsonarik gazteena", esan digu Loreak.

Dena dela, aurrerantzean ere gura duten herritarrek izango dute EHNA tramitatzeko aukera. Udaletxean egin ahal izango da EHNAren tramitazioa astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eta eguenetan, 15:00etatik 17:00etara.

Bai Euskal Herriari taldeak eskerrak eman gura dizkie EHNAri babesa eman dioten Udalari, alderdi politikoei eta herriko talde eta elkartei.

LABUR

Apotzagatik jaitsi ondoren, kalez kale ibiliko da aurten ere Olentzero

Olentzero egunean herriko umeek eguerdian izango dute lehenengo hitzordua. Plazan elkartu eta Trikitixa eskolako ikasleekin kalejira egingo dute eta Gabon kantak kantatuko dituzte. 13:00etatik 14:00etara bitartean Olentzeroren laguntzaileek umeen kartak jasoko dituzte. 17:30ean, Apotzagatik datorren Olentzerori agurra egin eta gero, herritarren laguntzarekin kalez kale ibiliko da Olentzero. Goizean eta arratsaldean gaztaina erreak izango dira plazan. Eguaztenean base-ritar jantzita irteteko eskatu gura diete herritarrei antolatzaileek.



Elkartasun meza eta afaria Atxorrotzek

Domekan, hilak 14, Eskoriatzako Atxorrotz gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta elkartasun meza egin zuten herriko parrokiari. Gaur, egubakoitza, berriz, elkartasun afaria egingo dute gura duten herritarrek Apotzagako Auzoetxe elkartean. Afarian parte hartzeko 80 lagunek eman dute izena. Abian dituzten proiektuak bultzatuko dituzte jasotako diruarekin.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Arizmendi-Jose Arana	943 77 20 25
Arizmendi-Almen	943 77 20 25
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59


BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

'PAKITA' ANTZESLANA GAUR
Gaur, egubakoitza, Txalo produkzioen eskutik *Pakita* antzezlanak ikusi ahal izango da HUHEZIn, 22:00etan.

GABONETAKO KONTZERTUA
Etzi, hilak 21, Musika Eskolako Bandak Gabonetako kontzertua emango du parrokiari, 13:00etan.

OLENTZERO EGUNA
Gogoratu Olentzero jaitziko dela basotik eguaztenean.



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gainera informazioa emateko, deitu gurera!


943 79 86 21

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274


INKERNU TABERNA Kulturgunea

Kafe-tertuaiak erakusketak antzerkiak monografikoak...

Danona eta danontzat

Etor zaitez!

Hidalga 5 Eskoriatza



AZKOAGA ESTANKOA

943 71 48 77
Zure Zerbitzura

Villar eta Heriz eskoriatzarrak nagusitu ziren Gatzagako Pilota Txapelketan

AINTZANE GARDOKI

Abenduaren lehenengo asteburuan jokatu zuten aurten Gatzagako Pilota Txapelketa.

Hamaika bikotek hartu zuten parte aurten txapelketan. Villar eta Heriz eskoriatzarrak izan ziren guztien artean onenak. Bigarren postuan, berriz, Txarrantxa eta Bengoa gelditu ziren. 22-16 irabazi zuten eskoriatzarrak. Hirugarren lekuan Ibai eta Joseba geratu ziren, Beloki eta Unairi irabazita. Partidua 18 tantora jokatu zuten eta lehenengo bikoteak 18-13 irabazi zien Beloki eta Unairi.

Aurten Gatzagako Pilota Txapelketa bi egunetan jokatu zuten pilotariak. Lehenengo egunetan kanporaketa sistema erabi-

li zuten bikoteek. Bigarren egunetan, aldiz, finalurrekoa eta finala jokatu zituzten. Tartean herriko gaztetxoek ere maila ederra erakutsi zuten pilotan. Odixek eta Antuñanak 18-13 irabazi zieten Lurri eta Aitorri.

Antolatzaileen esanetan oso giro polita egon zen herrian bi egunetan. "Eguraldiak lagundu arren, sua egin genuen eta intxaurrak eta mazapanak jarri genituen herritarrendako. Horrek beti laguntzen du-eta giroa animatzen", esan digu Belokik.

Sari ugari banatu zituzten pilotarien artean. "Hamaika bikoteondako egon ziren sariak. Hori ez da oso ohikoa. Jendea pozik zegoen", gaineratu digu Belokik. Gero, gainera, afaria egin zuten pilotari guztiek Gaztañuzketan.



MAITE BEITIA

Abenduko lehenengo asteburuan jokatutako txapelketan maila ona erakutsi zuten pilotariak, eta herrian giro polita jarri zuten.

"Sua egin genuen, eta intxaurrak eta mazapanak jarri genituen herritarrendako"

"Hamaika bikoteondako egon ziren sariak. Hori ez da oso ohikoa, jendea pozik zegoen"



Emaitzarik onenak lortu ditu Lurdeseek

Kutzak Gipuzkoako ikasle onenak saritu ditu aurten ere. Gipuzkoako 28 ikasle onen artean Gatzagako Lurdesek Etxeberriak ere jaso zuen sari preziatua. Lurdesek sari hori existitzen zenik ere ez omen zekien, baina gustura hartu omen du saria. Izan ere, Gabonak primeran pasatzeko 1.350 euroko diru saria jaso du Lurdesek. Bi urtez lana alde batera utzi eta Hizkuntzen Psikopedagogia ikasketak amaitu ditu HUHEZIn. Bere promozioiko emaitzarik onenak lortu ditu. Zorionak!

LABUR

Txizalekuko bihurtzea konpontzeko lanak egiten ari dira azkeneko asteotan

Txizalekuko bihurtzean eta inguruan errepideak behera egin du aspaldian. Lur azpiko presa bat apurtu zenetik lurrak mugitu egiten dira. Gipuzkoako Foru Aldundiko langileak hiru lekutan, behintzat, zuloak egin eta harri izugarri handiak sartzen ari dira. Lurrak egiten dituen mugimenduak ekidin eta lurra egonkortu gura dute lan hauek eginda. Datozen asteetan amaituko dituzte lanak.

Eusko Jaurlaritzak KZGunea zabalduko du Gabon ostean Gatzagako Garro jauregian

Mendikoi, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenerako Institutuko Mendinet autobusa Gatzagan izan da oraintsu. Herritar ugari hartu zuten parte Mendikoik eskaintako teknologia berrien gaineko ikastaroetan. Gabonetako opor ostetik aurrera, ibarreko beste herrietan moduan, Gatzagak ere KZGunea izango du. Garro jauregiko hirugarren solairuan, liburutegian, zabalduko dute KZGunea berria. Lehenengo herritarrek eman dute dagoeneko ikastaroetan parte hartzeko izena. Beraz, izena emateko epea zabalik dago.

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

SUZUKI

Aingeru Ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

www.forumsport.com



Badago ez daukagun opari bat

elurra

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

Sportland Arrasate. Garibai Etorbidea, 2-6

Aretz
taberna



.Gosariak

.Pintxoak

.Plater konbinatuak

.Otartekoak

.Pizzak

.Hanburgesak

.Sandwichak

.Oilasko erreak

.Kazuelatxoak

ONDO IBILI GABONETANI!

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera

9:00etatik zabalik

Astebukaeretan

11:00etatik aurrera

Markole 5 behea Tel.: 943 79 14 67 ARETXABALETA

AITZORROTZ

elektronika



- Automatismoak eta mantentze-lanak
- Instalazio elektrikoak
- Atezainak eta antena kolektiboak
- Salmenta eta konponketa
- TB-AUDIOA-BIDEOA salmenta eta konponketa
- Canal Satélite Digital
- Via Digital
- Telefonía
- Informatika
- Argiztapena



AITZORROTZ elektronika

Otalora 14 Tel: 943 79 16 10 Aretxabaleta

ARANZABAL koop. elk. elektrizitatea

Zerkaosteta 15 Tel: 943 79 68 21 Arrasate

Zorionak denoi!